

artikulu nabarmenak  
artículos destacados

2012



Gazteen  
Euskal Behatokia  
Observatorio Vasco  
de la Juventud

azaroa




**Salud y bienestar.**

Gazteen osasunari eta ongizateari buruzko hainbat artikulu biltzen dituen dossierra. Elikadura-azturei eta -nahasketei, buru-osasunari, sexualitateari eta afektibitateari eta aztura osasungatzei buruzko artikuluak ditu, bai eta gazteek bizimodu osasungarriari heltzen laguntzeko hausnarketak ere.

*Entrejóvenes*, 125. zk., 2012ko maiatza-ekaina, 28-45. or.

<http://www.diomira.net/cast/index.htm>



**Bissell-Havran, Joanna M.; Loken, erik; McHale, Susan M. Mothers' differential treatment of adolescent siblings: predicting college attendance of sisters versus brothers.**

Egungo kalkuluen arabera, 2015ean, unibertsitateko ikasleen % 60 emakumeak izango dira. Hori aldaketa handia da 1970etik, garai haran % 59 gizonak ziren eta. Unibertsitateko ikasleen arteko genero-aldea azal dezaketen familia-dinamikak aztertzen dira ikerketa honetan, hainbat jatorri etnikoko neba-arreben 522 bikoteko laginean oinarrituta. Amaren itxaropenei eta amak nerabezarotik aurrera hezkuntzan izandako parte-hartzeari buruz erregistratu diren diskurtsoetan aldeak daude neban eta arreben artean, eta alde horiek zazpi urte beranduago unibertsitateera joatean edo ez joatean eragina izan dezakete. Eraitzen arabera, familiaren barruko gizarte-konparaketek eta neban eta arreben diskurtsoetan amaren hezkuntza-partaidetzari buruz dauden aldeak izan dezakete eraginik nebek eta arrebek egindako hautuetan eta, azkenik, unibertsitateera joatean ala ez joatean.

*Journal of Youth and Adolescence*, 41. lib., 10. zk., 2012ko urria, 1267-1279. or.

<http://link.springer.com/article/10.1007/s10964-011-9727-6>



KULTURA SAILA  
Gazte eta Zuzendaritza  
DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Dirección de Juventud